



SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

XII Sagar Uzta 2012 Prentsa oharra

Contacto:

943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.com

www.sagardoarenlurraldea.com

Giro bikaina Astigarragako XII. Sagar Uzta egunean

Sagar Uztak hamabigarren edizioa bete du aurten tolaretako lanen hasiera ospatuaz eta sagarraren eta sagardoaren kulturen oinarrituriko jarduera ezberdinak izan dira Astigarragako talde eta herritarren laguntzarekin.



Sagarra eta sagardoa protagonistak izan dira gaur Astigarragan. Urtero bezala, Foruen Plazan **sagarraren azoka**, **sagardo dastaketa** eta **2012 uztako lehen muztioaren elaborazioa** izan dira, tolarean bertan muztioaren usadiozko elaborazio prozesua erakutsi delarik: kirikoketa, pisoiekin sagarra jotzea, txalaparta eta ekoiztutako muztioaren dastaketa.



Oso harrera ona izan dute antolaturiko jarduerak: **Sagar Tarta Lehiaketan** 26 parte-hartzailek beren sukaldaritzako dohaiak erakutsi dituzte eta denera 2 sari banatu dira: 2 lagunentzako otordua Astigarragako Roxario jatetxean eta Gorrotxategi produktuen lotea. Lehendabiziko sariaren irabazlea Loli Etxeberria izan da bigarren urtez eta bigarren sariaren irabazlea Ramon Aginaga izan da.



Bestalde, 30 parte-hartzailek Sagar Uzta jaiko unerik garrantzitsuenen argazkiak atera dituzte **V. Argazki Rally Digitalean** parte-hartuaz eta urriaren 19an argazki bilduma onenen sariak banatuko dira Sagardoetxea Museoan.

Arratsaldean, **sagardogintzan oinarrituriko herri kirolak** izan dira Foru Plazan Alorrenea, Lizeaga, Petritegi eta Rezola sagardotegien artean. Lehia gogorraren ostean, eta hirugarren urtez jarraian, **Astigarragako Rezola sagardotegia** izan da

txapela eraman duena. Aurten, nobedade bezala, haurrentzako sagardogintzan oinarrituriko jolas bereziak izan dira herri kirol probetan.



Bestalde, Sagar Uztarako antolaturiko ekintzen barruan, **“Santiagomendiko Sagardo Bidea”** ibilbidearen bixita gidatua izan zen atzo. Ibilbide tematiko honetan, sagardoaren kultura, Santiagomendiko baserrien eta Astigarragako historia harrigarria eta Santiago Bidearen Gipuzkoan zeharko punturik adierazgarrienetarikoa ezagutzeko aukera dago azalpen panel, multimediazko elementu eta joko interaktiboen bidez.

“Santiagomendiko Sagardo bidea” **Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoko laugarren gunea** izango da eta **SAGARDOAREN LURRALDEAK** biltzen duen **euskal sagardoaren kulturako erakargarri berri bat** izango da.

Honetaz gain, ostegunean Astigarragako tabernetan ospatu zen **pintxo-poteak**, sagarrarekin eta sagarraren eratorrieekin eginiko pintxoak dastatzeko aukerak erakarrita, bisitari asko bildu zituen.

Ostiralean Roxario jatetxean ospatu zen **Euskal Herriko sagarraren kata gidatuak** ere harrera bikaina izan zuen. Bertan, lau sagar barietate ezberdin eta euren sagar muztioak dastatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Kata ondoren, sagar dultze ezberdinak eta Rafael Gorrotxategi gozogileak egindako azkenburuko berezi bat dastatzeko aukera ere izan zuten.



Antolatzailea: Sagardun Partzuergoa

Sagardun Partzuergoa 2003. urtean sortu zen entitate publiko-pribatua da. Gaur egun Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa kudeatzen du, Sagardo Berriaren Eguna eta Sagar Uzta ekitaldiak antolatzen ditu, sagardoaren kultura sustatzen du esperientzia turistikoa ezberdinen bitartez eta "Sagardoaren Lurraldea" marka kudeatzen du.

Sagardun Partzuergoaren osaketa:

Administrazioa:

Astigarragako Udala

Talde Kulturalak:

- Astigar E.O.E.
- Goldea Herri Kirol Batzordea
- Gure Izarra
- Mundarro Kirol Elkarte
- Norberto Almandoz Musika Eskola
- Xagu Xar
- Zipotza Kultur Elkarte

Sagardotegiak:



Kolaboratzaileak:

Erbitegi Etxeberri Kirikoketa Taldea, Astigarte, Roxario eta Ibai-Lur jatetxeak, Ikatza, Bukoi, The Robin, Sagartxo, Irati, Kupela, Txotx, Txiki, Ekaitz, Pastoriza, Kizki eta Zipotza tabernak, Mecanizados Laubide, Marisol Yaben, Pastain Argazkiak, Josu Osa, Behemendi eta bolondres lana egiten duten guztiak.

Babesleak:



SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 331 311

info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com
www.facebook.com/SagardoarenLurraldea
twitter: @sagarlur_es | @sagarlur_eu

SAGARDOAREN
LURRALDEA

txotx.info



Sagardoetxea

Sagardobenda



SagardoPedia

SAGARDUN
SAGARDOAREN BIZITZA ASTIGARRAGA

EUSKADI



TURISMO
GIPUZKOA
HAIR TXIKI, HAIR HANDI
TAIR PEQUEÑA, TAIR GRANDE